



## ERRENTERIA UDALA

Idazkaritz Orokorra / Secretaría General

**Espediente zk./Nº Expediente: 2023IUBA0004**

**Gaia/Asunto: 2023/04/25 Udalbatzaren ohiko osoko bilkura/Sesión ordinaria de Pleno de fecha 25/04/2023**

**Udalbatzak 2023ko apirilaren 25an eginiko ohiko bilkurari dagokion akta.**

Errenteriako Udaletxeen, 2023ko apirilaren 25ako 18:30ak zirela, lehenengo deialdian eta Aizpea Otaegi Mitxelena Alkatearen esanetara (EH Bildu Orereta/Errenteria), ondorengo zinegotziak elkartu dira:

**Acta de la sesión ordinaria de Pleno de la Corporación celebrada el día 25 de abril de 2023.**

En la Casa Consistorial del Ayuntamiento de Errenteria, siendo las 18:30 horas del día 25 de abril de 2023, se reúnen en primera convocatoria, bajo la presidencia de la alcaldesa Aizpea Otaegi Mitxelena (EH Bildu Orereta/Errenteria), las y los siguientes Concejalas y Concejales:

### **EH Bildu Orereta/Errenteria**

- Alazne KORTA ZULAIKA
- Itziar OSTOLAZA GALDOS
- Eñaut GRACIA IBARRA
- Bernar LEMOS TABERNA
- Garazi LOPEZ DE ETXEZARRETA AUZMENDI
- Eneko DEL AMO JIMÉNEZ
- Jose Ramon GURRUTXAGA ZUBIZARRETA
- Iñaki QUERALT COIRA

### **EH Bildu Orereta/Errenteria**

- Alazne KORTA ZULAIKA
- Itziar OSTOLAZA GALDOS
- Eñaut GRACIA IBARRA
- Bernar LEMOS TABERNA
- Garazi LOPEZ DE ETXEZARRETA AUZMENDI
- Eneko DEL AMO JIMÉNEZ
- Jose Ramon GURRUTXAGA ZUBIZARRETA
- Iñaki QUERALT COIRA

### **Euskal Sozialistak/Socialistas Vascos (ES-SV)**

- Jose Angel RODRIGUEZ MEDINA
- Montserrat LUIS CANO
- Isaac PALENCIA CABALLERO
- Joseba ECHARTE MARTÍN
- Yosleidy Cristina FERRERA CEDEÑO
- Iñaki RUIZ ALONSO

### **Euskal Sozialistak/Socialistas Vascos (ES-SV)**

- Jose Angel RODRIGUEZ MEDINA
- Montserrat LUIS CANO
- Isaac PALENCIA CABALLERO
- Joseba ECHARTE MARTÍN
- Yosleidy Cristina FERRERA CEDEÑO
- Iñaki RUIZ ALONSO

### **EAJ-PNV**

- Elixabete MURUA MINDEGUIA
- Garbiñe OYARBIDE IRURETAGOYENA

### **EAJ-PNV**

- Elixabete MURUA MINDEGUIA
- Garbiñe OYARBIDE IRURETAGOYENA

### **Elkarrekin Errenteria**

- Xabier SÁNCHEZ AGUIRREGOMEZCORTA

### **Elkarrekin Errenteria**

- Xabier SÁNCHEZ AGUIRREGOMEZCORTA



## ERRENTERIA

### UDALA

Idazkaritz Orokorra / Secretaría General

- Maite GARTZIA ONTIVEROS

- José Manuel FERRADÁS FREIJO

- Maite GARTZIA ONTIVEROS

- José Manuel FERRADÁS FREIJO

Ez da etorri, baina ezinetorria adierazi du, Maite Peña Lopezek (EAJ-PNV).

Bertan dago, egintza fedatzeko, Nagore Sarasola Otermin Idazkari orokorra.

Era berean, bertan dago Irune Soto Cotorro udal Kontuhartzaila.

No asiste excusando su inasistencia, Maite Peña Lopez (EAJ-PNV).

Asiste y da fe del Acto la Secretaria general Nagore Sarasola Otermin.

Igualmente asiste la Interventora Municipal Irune Soto Cotorro .

**1. 2023ko martxoaren 28ko ohiko bilkurari dagokion akta irakurri, eta egoki bada, onartzea. (2023IUBA0003)**

Oharrak gabe onartu da.

**1. Lectura y aprobación en su caso del acta correspondiente a la sesión ordinaria del 28 de marzo de 2023. (2023IUBA0003)**

Se aprueba sin observación alguna.

**2. Ondorengo ebatzenen berri ematea: Alkatetzarenak eta Zinegotzi-ordezkarienak, 665 zk.tik 910 zk.ra (biak barne) eta Tokiko Gobernu Batzordearenak.**

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

**2. Dar cuenta de Resoluciones de la Alcaldesa y de Concejales Delegados nºs 665 al 910 (ambos incluidos), y de la Junta de Gobierno Local.**

El pleno queda enterrado.

**3. Berri eman: 2023ko 1ngo hiruhileko diru-laguntzak.**

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

**3. Dar Cuenta: Subvenciones 1er trimestre 2023.**

El pleno queda enterrado.

**4. Berri ematea: 2023ko 1ngo hiruhilabetea: Udalaren eta menpeko entitateen aurrekontuaren exekuzioa eta OBBE. (2023SAEX0002)**

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

**4. Dar cuenta: 1er Trimestre 2023: Ejecución presupuesto Ayuntamiento y sus Organismos dependientes y PMP. (2023SAEX0002)**

El pleno queda enterrado.



## ERRENTERIA

### UDALA

Idazkaritza Orokorra / Secretaría General

#### **5. Proposamena: Aurreko ekitaldietako diru-sarrerei dagokien baja (2023QBPH0003)**

Hiru hilean behin, kobratzeko dauden diru-sarrerak berrikusten dira, hainbat arrazoirengatik (preskripzioa, kobratzeko eskubidea, kobratzeko eskubidea, bikoiztasuna, aitortutako eskubide-soberakina, etab.) kobratu eta kudeatu ezin diren udal Ogasunaren aldeko eskubideak udal kontabilitatean eguneratzeko eta baja emateko.

Egungo ekitaldiko Zergei baja emateko proposamena aurkeztu dela, eta horren aurrekariak diruzaintzan daudelarik.

Udal Diruzainak aldeko txostena eman du 2023ko apirilaren 13an.

Azaldutakoa ikusita, Ogasun Arloko zinegotzi ordezkariak Antolaketako Informazio Batzordeari proposatu dio Udalbatzaren bilkurari aldeko irizpena eman diezaiola hurrengoa erabakia hartzeari.

#### **5. Propuesta: Baja ingresos de ejercicios anteriores. (2023QBPH0003)**

Trimestralmente, se revisan los Ingresos pendientes de cobro con el objetivo de poner al día las cuentas y dar de baja en la contabilidad municipal los derechos a favor de la Hacienda municipal que no pueden ser gestionados para su cobro e ingreso por motivos diversos (prescripción, fallidos, duplicidad, exceso de derecho reconocido, etc.)

Se ha presentado la propuesta de baja de Tributos del ejercicio corriente, cuyos antecedentes se encuentran en Tesorería.

La Tesorera municipal ha emitido informe favorable el 13 de abril de 2023.

A la vista de lo expuesto, la concejala delegada del Área de Hacienda propone a la Comisión Informativa de Organización se dictamine favorablemente al Pleno de la Corporación la adopción del siguiente acuerdo.

#### ZUZENBIDE OINARRIAK

2/2005 Foru Araua, martxoaren 8koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzkoa (58, 68.2, 74, 171.3 eta 174.3 artikuluak, besteak beste)

38/2006 Foru Dekretua, abuztuaren 2koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Dirubilketa Erregelamendua onartzen duena (61. artikulutik 63.era).

21/2003 Foru Araua, abenduaren 19koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoa (33. artikulua).

2022ko Aurrekontua Betearazteko Udal Araua, 3. oinarria. Kredituen lotura juridikoaren mailak eta 4.

#### FUNDAMENTOS DE DERECHO

Norma Foral 2/2005, de 8 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa (artículos, entre otros, 58, 68.2, 74, 171.3, 174.3)

Decreto Foral 38/2006, de 2 de agosto, por el que se aprueba el Reglamento de Recaudación del Territorio Histórico de Gipuzkoa (artículos 61 a 63).

Norma Foral 21/2003, de 19 de diciembre, presupuestaria de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Gipuzkoa (artículo 33).

Norma Municipal de Ejecución Presupuestaria 2022, Base 3<sup>a</sup> "Niveles de vinculación jurídica de los



## ERRENTERIA

### UDALA

Idazkaritza Orokorra / Secretaría General

oinarria. Aurrekontu-kredituak aldatzeko araubidea.

2023ko apirilaren 19an, Ogasuneko Zinegotzi Delegatuak proposatuta, Antolaketa Batzordeak gai honen aldeko irizpena eman zuen.

Udalbatzarrak, aldeko 12 botorekin (EH Bildu Orereta/Errenerteria, eta Elkarrekin Errenerteria) eta 8 abstenciórek (Euskal Sozialistak/Socialistas Vascos (ES-SV) eta EAJ-PNV),

créditos” y Base 4<sup>a</sup> “Régimen de modificación de los créditos presupuestarios”.

Visto que en fecha 19 de abril de 2023, a propuesta de la Delegada de Hacienda, la Comisión de Organización dictamina favorablemente el presente asunto.

El Pleno de la Corporación, por mayoría de 12 votos a favor (EH Bildu Orereta/Errenerteria, y Elkarrekin Errenerteria) y 8 abstenciones (Euskal Sozialistak/Socialistas Vascos (ES-SV) y EAJ-PNV),

### ERABAKI DU

Lehena: Aurreko ekitaldietako diru-sarrerei dagokien baja onartzea; **29.318,82 €-koia.** Hona hemen xehetasunak:

Errentak departamentuak baliogabetu dituen ordainagiri eta kitapenak:

### ACUERDA

Primero: Aprobar la baja correspondiente a ingresos de ejercicios anteriores, que asciende a **29.318,82 €** siendo el detalle el siguiente:

Recibos y liquidaciones anulados por el Departamento de Rentas:

B-1-2023	17.553,93 €
B-3-2023	11.764,89 €

### 6. Proposamena: Kredituak judizioz kanpo aitortzea. (2023SPOL0003)

2022ko ekitaldian ordaindu gabeko betebehar ekonomikoak eta aurrekontuan egoztekoak daudela ikusita, guztira 74.026,36 euroko zenbatekoak dutenak.

Udal Kontu-hartzaitzaren txostena ikusi da. Horren arabera, egiaztatuta geratu da betebehar horiek bidegabekotzat jotzen direla, Kontu Auzitegiak 1415/2021 txostenean jasotzen dituen kasuetako batzuk gertatzen direlako.

Ikusirk Udalaren kontu-hartzaleak 2023ko apirileko 12an egindako txostena non, APEL-aren 110. eta

### 6. Propuesta: Aprobación reconocimiento extrajudicial de créditos. (2023SPOL0003)

Vista la existencia de una serie de obligaciones económicas pendiente de pago e imputación presupuestaria adquiridas en el ejercicio 2022, cuyo importe total asciende a 74.026,36 €.

Visto el informe de la Interventora Municipal en el que se establece que ha quedado acreditado que dichas obligaciones se consideran indebidamente adquiridas por concurrir algunos de los supuestos que recoge el Tribunal de Cuentas en su informe 1415/2021.

Visto el informe de la Interventora municipal de fecha 12 de abril de 2023 en el que se constata que



## ERRENTERIA

### UDALA

Idazkaritz Orokorra / Secretaría General

BKR-aren 28.2.e) artikuluek xedatutakoa jarraituz, ofiziozko berrikusketa salbuetsiko luketen baldintzak betetzen direla egiaztatzen den eta ondorioz, egiazki jasotako prestazioak zuzenean ordaintza egokitzak jotzen den. Horretarako, aurreko ekitaldietan bidegabe hartutako gastuetatik eratorritako obligazioak aurrekontura egozteko jarraitu beharreko prozedura kredituen judizioz kanpoko onarpen expediente da.

Ikusirk Zerbitzu Juridikoen 2023ko apirilaren 13ko txostena, non esaten baita egintza horiek ofizioz berrikustea ez dela beharrezkoa, eta gomendatzenda, prozeduraren berezitasuna dela eta, aurrerantzean eskura dauden tresna guztiak erabiltzea horrelako egoerak saihesteko.

Egiaztatu da indarrean dagoen aurrekontuan badagoela kreditu nahiko eta egokia gastuak aplikatzeko.

### ZUZENBIDE OINARRIAK

\* 500/1990 Errege Dekretua, apirilaren 20koa, Toki Ogasunak arautzen dituen abenduaren 28ko 39/1988 Legearen seigarren tituluko lehen kapitulua garatzen duena, aurrekontuen arloan.

\* 21/2003 Foru Araua, abenduaren 19koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoa.

\* 86/2015 Foru Dekretua, abenduaren 15ekoa, Gipuzkoako toki-erakundeen kontabilitatearen arau-esparria onesten duena.

\* 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena.

\* Kontuen Auzitegiaren 1415/2021 txostena, toki-erakundeek 2018ko ekitaldian onetsitako judizioz kanpoko kredituak onartzeko expedienteak

concurren las circunstancias que excluyen la revisión de oficio, conforme a los arts. 110 de la LPAC y 28.2.e) del RCI y procede optar por el pago directo de las prestaciones materialmente realizadas; siendo necesario tramitar un expediente de reconocimiento extrajudicial de créditos para aplicar al presupuesto vigente obligaciones indebidamente adquiridas procedentes de ejercicios anteriores.

Visto el informe de los Servicios Jurídicos de fecha 13 de abril de 2023, donde se dice que la revisión de oficio de estos actos no es necesaria y se recomienda, dada la excepcionalidad del procedimiento, que en lo sucesivo se utilicen todas las herramientas disponibles para evitar este tipo de situaciones.

Se ha constatado que existe crédito suficiente en el presupuesto vigente para hacer frente al reconocimiento de los gastos.

### FUNDAMENTOS DE DERECHO

\* Real Decreto 500/1990, de 20 de abril por el que se desarrolla el capítulo primero del título sexto de la Ley 39/1988, de 28 de diciembre, reguladora de las Haciendas Locales, en materia de presupuestos.

\* Norma Foral 21/2003, de 19 de diciembre, Presupuestaria de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

\* Decreto Foral 86/2015, de 15 de diciembre, por el que se aprueba el marco regulatorio contable de las entidades locales de Gipuzkoa.

\* Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público.

\* Informe 1415/2021 del Tribunal de Cuentas, de fiscalización de expedientes de reconocimientos extrajudiciales de crédito aprobados por las entidades



## ERRENTERIA

### UDALA

Idazkaritza Orokorra / Secretaría General

fiskalizatzeari buruzkoa

\* Aurrekontua exekutatzeko 2023ko udal araua.

Ogasuneko zinegotzi delegatuak egindako erabaki proposamena eta Kontuhartzaileak espedienteen jasotako erabaki-proposamenari emandako adostasuna ikusita, Antolaketa Informazio Batzordeari proposatzen dio aldeko irizpena eman diezaion, gero Udalbatzak ondorengo erabakia har dezan.

2023ko apirilaren 19an, Ogasuneko Zinegotzi Delegatuak proposatuta, Antolaketa Batzordeak gai honen aldeko irizpena eman zuen.

Udalbatzarrak, aldeko 12 botorekin (EH Bildu Orereta/Errenteria, eta Elkarrekin Errenteria) eta 8 abstencioarekin (Euskal Sozialistak/Socialistas Vascos (ES-SV) eta EAJ-PNV),

### ERABAKI DU

1.- **ONARTZEA** I. eranskinean aipatzen diren kredituen judizioz kanpoko aitorpena, guztira 74.026,36 eurokoa, 2022 ekitaldiari dagokiena.

3.- 2023ko aurrekontuari **EGOZTEA**, aurrekontuko kontu-sailen kargura eta II. eranskinean zehaztutako zenbatekoen arabera.

### 7. Proposamena: kreditu gehikuntza KALD-04 onartzea eta KALD-05 kredituen konpromisoa aldatzea (2023SKAL0004)

Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko expedientea egin du, kreditu gehigarriak eta konpromiso-kredituen modalitatean,

locales en el ejercicio 2018.

\* Norma municipal de ejecución presupuestaria de 2023.

Vista la propuesta de acuerdo de la delegada de Hacienda, y la conformidad dada por la Interventora a la propuesta de acuerdo que consta en el expediente, se propone a la Comisión Informativa de Organización, se dictamine favorablemente al Pleno de la Corporación

Visto que en fecha 19 de abril de 2023, a propuesta de la Delegada de Hacienda, la Comisión de Organización dictamina favorablemente el presente asunto.

El Pleno de la Corporación, por mayoría de 12 votos a favor (EH Bildu Orereta/Errenteria, y Elkarrekin Errenteria) y 8 abstenciones (Euskal Sozialistak/Socialistas Vascos (ES-SV) y EAJ-PNV),

### ACUERDA

1.- **APROBAR** el reconocimiento extrajudicial de los créditos que se relacionan en el Anexo I, por un importe total de 74.026,36 €, correspondientes a los ejercicios 2022.

2.- **APLICAR** al presupuesto de 2023 con cargo a las partidas presupuestarias y por los importes detallados en el Anexo II.

### 7. Propuesta: aprobación créditos adicionales KALD-04 y modificación compromiso de créditos KALD-05 (2023SKAL0004)

El Ayuntamiento ha realizado expediente de modificación de créditos del presupuesto vigente, mediante adicionales y compromiso de créditos, n.º



## ERRENTERIA

### UDALA

Idazkaritza Orokorra / Secretaría General

2023SKALD0004 (KALD-0004 eta KALD-0005) zenbakikoa.

Kontu-hartzaleak emandako txosten eta ziurtagiriaren arabera expedientea bat dator aplikagarria zion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 34. eta 22. artikuluetan ezarritakoarekin.

Horregatik guztiagatik, Ogasuneko Zinegotzi Delegatuak proposatuta, eta kontu-hartzaleak emandako adostasunarekin.

### ZUZENBIDE OINARRIAK

\* 21/2003 Foru Araua, abenduaren 19koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoa.

\* 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinriaiak arautzen dituena.

2023ko apirilaren 19an, Ogasuneko Zinegotzi Delegatuak proposatuta, Antolaketa Batzordeak gai honen aldeko irizpena eman zuen.

Udalbatzarrak, aldeko 12 botorekin (EH Bildu Orereta/Errenteria, Elkarrekin Errenteria), aurkako 6 botorekin (Euskal Sozialistak/Socialistas Vascos (ES-SV)) eta 2 abstensiorekin (EAJ-PNV),

2023SKALD0004 (KALD-0004 y KALD-0005).

Según el informe y certificación emitidos por la interventora dicho expediente está ajustado a la normativa que le es aplicable, en concreto a los requisitos establecidos por los artículos 22 y 34 de la Norma Foral 21/2003, de 19 de diciembre, Presupuestaria de las Entidades Locales.

Por todo ello, a propuesta de la Concejala Delegada de Hacienda, y con la conformidad dada por la Interventora.

### FUNDAMENTOS DE DERECHO

\* Norma Foral 21/2003 de 19 de diciembre, presupuestaria de las entidades locales del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

\* Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local

Visto que en fecha 19 de abril de 2023, a propuesta de la Delegada de Hacienda, la Comisión de Organización dictamina favorablemente el presente asunto.

El Pleno de la Corporación, por mayoría de 12 votos a favor (EH Bildu Orereta/Errenteria, Elkarrekin Errenteria), 6 votos en contra (Euskal Sozialistak/Socialistas Vascos (ES-SV)) y 2 abstenciones (EAJ-PNV),

### ERABAKI DU

1.- Hasiera batez **ONARTZEA** udal aurrekontuaren gaineko 2023-KALD-0004 kreditu-aldaketa expedientea, kreditu gehigarrien bidez.

### ACUERDA

1.- **APROBAR** inicialmente el expediente 2023-KALD-0004 de modificación de créditos del presupuesto municipal, modalidad créditos adicionales.



## ERRENTERIA

**UDALA**

Idazkaritz Orokorra / Secretaría General

**KREDITU GEHIGARRIAK: KALD-0004**

**CRÉDITOS ADICIONALES: KALD-0004**

<b>Kapituluak</b> Capítulo	<b>Izena</b> Denominación	<b>Gehikuntzak</b> Incremento
2	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN GASTOS EN BIENES CORRIENTES Y SERVICIOS	120.500,00
4	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK TRANSFERENCIAS CORRIENTES	589.100,00
6	INBERTSIO ERREALAK INVERSIONES REALES	610.000,00
<b>GUZTIRA / TOTAL:</b>		<b>1.319.600,00</b>

### FINANTZAKETA / FINANCIACIÓN

<b>Kapituluak</b>	<b>Izena</b>	<b>Zenbatekoa</b>
8 (SARRERAK)	FINANTZA AKTIBOAK ACTIVOS FINANCIEROS	1.319.600,00
<b>GUZTIRA / TOTAL:</b>		<b>1.319.600,00</b>

2.- Hasiera batez **ONARTZEA** udal aurrekontuko konpromiso kredituen 2023-KALD-0005 aldaketa espedientea.

2.- **APROBAR** inicialmente el expediente 2023-KALD-0005 de modificación de créditos de compromiso del presupuesto municipal.

**KONPROMISO KREDITUAK: KALD-0005**

**CRÉDITOS DE COMPROMISO: KALD-0005**

<b>Partida</b>	<b>Azalpena</b> Descripción	<b>2023</b>	<b>2024</b>	<b>2025</b>
1530.481.04.341.30	IKASTETXEAK, KIROL ESKOLA CENTROS ESCOLARES; DEPORTE ESCOLAR	94.800,00	23.700,00	
0430.622.01.342.10	FANDERIAKO IGERILEKUAK TEILATUA BERRITZE REFORMA CUBIERTA PISCINAS FANDERIA	300.000,00	420.000,00	
0520.609.00.170.00	EREÑOZUKO PRESAREN INGURUA BERRONERATZEA / RENATURALIZACIÓN ENTORNO PRESA EREÑOZU		500.000,00	200.000,00



## ERRENTERIA

### UDALA

Idazkaritz Orokorra / Secretaría General

GUZTIRA / TOTAL:	394.800,00	943.700,00	200.000,00
------------------	------------	------------	------------

**2.- Expedientea JENDAURREAN JARTZEA**  
hamabost laneguneko epean, behin iragarkia GAOan eta udal web orrian argitaratuta.

**3.- Aurrekontua kreditu gehigarri eta konpromiso bidez aldatzeko 0004-0005 expedienteak aldaketaren inguruko erabakia **BEHIN BETIKOA IZANGO** da, eta beraz ez du erabaki berririk beharko, baldin eta, jendaurrean jarri eta handik hamabost lanegun igaro ondoren, ez bada erreklamaziorik aurkezten.**

**2.- EXPONER** el expediente al público por plazo de quince días hábiles tras publicar el correspondiente anuncio en el BOG, y en la web municipal.

**3.-** El acuerdo adoptado sobre la modificación de créditos 0004-0005 mediante adicionales y compromiso de créditos, **DEVENDRÁ DEFINITIVO**, sin necesidad de nuevo acuerdo si, transcurrido el plazo de quince días hábiles de exposición al público, no se hubiese presentado reclamación alguna.

#### **8. Proposamena: Erreenteriako Udaleko langileen lan-baldintza akordioaren onarpena: Udalhitz 2023-2025. (2023RPOL0029)**

Erreenteriako Udaleko Negoziazio Mahai Orokorean bi urtez negoziatu da Erreenteriako Udaleko langileen lan-baldintzak arautzen dituen akordioa.

Espedientean Negoziazio Mahai Orokorrak 2021eko otsailaren 25etik 2023ko martxoaren 30era bitartean egindako bileren aktak jaso dira, eta guztira 22 bilera egin dira.

Testu batekin bat egin da, non alderdiek egindako negoziazioa eta azken dokumentuan sartu diren sindikuetako bakoitzak egindako eskaerak jasotzen diren.

Negoziazio Mahai Orokorrak 2023ko martxoaren 9an egindako bileran, Gobernu Taldeak eta LAB sindikatuak aurreakordio bat formalizatu zuten Erreenteriako Udaleko langileen lan-baldintzak

#### **8. Propuesta: Aprobación de las condiciones de trabajo de los/las trabajadores/as del Ayuntamiento de Erreenteria: Udalhitz 2023-2025. (2023RPOL0029)**

En la Mesa General de Negociación del Ayuntamiento de Erreenteria se ha negociado durante dos años el Acuerdo regulador de las condiciones de trabajo del personal municipal del Ayuntamiento de Erreenteria.

Se ha recogido en el expediente las actas de las reuniones de la Mesa General de Negociación que se han celebrado entre el 25 de febrero de 2021 y el 30 de marzo de 2023, resultando un total de 22 reuniones.

Se ha elaborado un texto refundido donde se refleja la negociación llevada a cabo por las partes, y las solicitudes efectuadas por cada uno de los sindicatos de la parte social que se han incorporado al documento final.

En la reunión de la Mesa General de Negociación celebrada el 9 de marzo de 2023 el Equipo de Gobierno y el sindicato LAB formalizaron un preacuerdo en relación al Acuerdo regulador de las



## ERRENTERIA

### UDALA

Idazkaritza Orokorra / Secretaría General

arautzen dituen akordioari dagokionez (Udalhitz 2023 - 2025), sindikatuek udal-langileen batzar baterako deia egin eta azken horrek aipatutako aurreakordioaren proposamena berretsi ondoren (2023-03-01eko batzarra).

Errenteriako Udaleko langileen lan-baldintzak autzen dituen Akordioaren behin betiko testua (Udalhitz 2023 - 2025), hizkuntza inklusiboaren, generoaren eta euskararen zuzenketa egokiak eta azken hilabeteetan onartutako legeek eragindako aldaketak jasotzen zituena, 2023ko martxoaren 30eko Negoiazio Mahai Orokorraren bileran aurkeztu zen, eta Gobernu Taldearen eta LAB sindikatuaren arteko akordioa berretsi zen, CCOO eta ELA sindikatuen abstentzioarekin.

Lan-baldintzak autzen dituen akordio berriak aurrekoa ordezkatuko luke, hau da, UDALHITZ 2008-2010, EAEko toki-erakundeetako funtzionarioen eta lan-kontratuko langileen lan-baldintzak autzen dituena, 2008ko irailaren 22koa. Akordio hori 2008ko azaroaren 28ko osoko bilkuraren erabakiaren bidez onartu zen, eta osoko bilkurak 2018ko ekainaren 26an, 2020ko otsailaren 20an, 2021eko urtarrilaren 26an, 2022ko uztailaren 19an eta 2022ko abenduaren 20an hartutako erabakien bidez aldatu zen.

Hitzarmen autzailearen eremu pertsonala udaleko langile guztiei, funtzionarioei eta lan-kontratuko langileei, karrerako langileei, bitarteko langileei, langile finkoei edo aldi baterakoei dagokie.

Hitzarmen autzaile berria Errenteria Musical udalerakunde autonomoko langileei ere aplikatuko zaie, ordezko araubide edo esparru orokor gisa, bere gobernu-organoek negoziatu eta onar ditzaketen berezitasunei kalterik egin gabe. Izen ere gobernu organo horiek dira eskudunak patronatuko langileen lan baldintzak autzeko.

condiciones de trabajo del personal municipal del Ayuntamiento de Errenteria (Udalhitz 2023 - 2025), tras haber convocado la parte sindical una asamblea de empleadas y empleados municipales, y haber refrendado esta última la propuesta del citado preacuerdo (asamblea de fecha 01-03-2023).

El texto definitivo del Acuerdo regulador de las condiciones de trabajo del personal municipal del Ayuntamiento de Errenteria (Udalhitz 2023 - 2025), el cual incorporaba las correcciones oportunas de lenguaje inclusivo, genero, y euskera, así como las modificaciones operadas por las leyes aprobadas en los últimos meses, fue presentado en la reunión de la Mesa General de Negociación de 30 de marzo de 2023, resultando ratificado el acuerdo entre el Equipo de Gobierno y el sindicato LAB, con las abstención de los otros dos sindicatos CCOO y ELA.

El nuevo acuerdo regulador de las condiciones de trabajo vendría a sustituir al anterior, que resulta ser el *"UDALHITZ 2008-2010" regulador de las condiciones de trabajo del personal funcionario y laboral de las instituciones locales vascas*, de fecha 22 de septiembre de 2008, el cual había sido aprobado por Acuerdo Plenario de 28 de noviembre de 2008, y modificado por Acuerdos Plenarios de 26 de junio de 2018, 20 de febrero de 2020, 26 de enero de 2021, 19 de julio de 2022, y 20 de diciembre de 2022.

El ámbito personal del acuerdo regulador se extiende a todo el personal municipal, personal funcionario y laboral, de carrera, interino, fijo o temporal.

El nuevo acuerdo regulador también le resultará de aplicación al personal del organismo autónomo municipal Errenteria Musical con carácter supletorio o en calidad de marco general, sin perjuicio de las especificidades que puedan ser negociadas y aprobadas por sus órganos de gobierno, al resultar estos últimos los competentes para la regulación de



## ERRENTERIA

### UDALA

Idazkaritza Orokorra / Secretaría General

Lan-baldintzak arautzen dituen akordio honek onartu eta hurrengo egunetik 2025eko abenduaren 31ra arte iraungo du.

Artikuluetan jasotako hobekuntzen aranean, honako hauek daude:

- Lana eta familia bateragarri egiteko arrazoiak direla-eta, lanera sartzeko eta irteteko tolerantzia-margina handitzea.
- Telelana arautzeko esparru orokorra ezartzea.
- Oporraldia hurrengo urteko urtarilaren 15era arte luzatzea.
- Inskribatu gabeko izatezko bikoteei eskubideak zabaltzea.
- Ezkontideen eta seme-alaben heriotzagatiko, istripuagatiko, gaixotasun larriagatiko edo ospitaleratzeagatiko lizentzia luzatzea.
- Banantzeagatiko lizentzia sartzea.
- Adingabeak zaintzeko lizentziak handitzea, adingabeek 16 urte bete arte, eta horietan mendeko pertsonak, dibertsitate funtzionala dutenak edo beren kabuz moldatzeko zaitasunak dituztenak zaintza.
- Norberaren gauzetalako lizentzia ordutan zatitzeko aukera.
- Produktibitate-osagarria ordaintza 2023ko eta 2024ko ekitaldietan.
- Erretiro aurreratuagatiko primak berreskuratzeko konpromisoa, legeak ahalbidetzen duen unean.

las condiciones de trabajo del personal del patronato.

El ámbito temporal del presente acuerdo regulador de las condiciones de trabajo se extiende desde el día siguiente a su aprobación hasta el 31 de diciembre de 2025.

Entre las mejoras incluidas en el articulado encontramos las siguientes:

- Ampliación del margen de tolerancia de entrada y salida al trabajo por motivos de conciliación familiar.
- Establecimiento del marco general para la regulación del teletrabajo.
- Ampliación del periodo de disfrute de vacaciones hasta el 15 de enero del año siguiente.
- Ampliación de derechos a las parejas de hecho no inscritas.
- Ampliación de la licencia de fallecimiento, accidente, enfermedad grave u hospitalización de conyuge e hijas/os.
- Incorporación de licencia por separación.
- Ampliación de las licencias de cuidado de menores hasta que los mismos cumplan 16 años e incorporar a las mismas el cuidado de personas dependientes, con diversidad funcional o con importantes dificultades para valerse por si mismas
- Posibilidad de fraccionamiento en horas de la licencia por asuntos particulares.
- Abono de complemento de productividad en los ejercicios 2023 y 2024.
- Compromiso de recuperación de las primas por jubilación anticipada en el momento en que lo



## ERRENTERIA

### UDALA

Idazkaritza Orokorra / Secretaría General

- Hautaketa-plan estrategiko bat egitea, behin-behinekotasuna murrizteko.
- Kanpo-kontratazioei buruzko diagnostikoa egitea.

### ZUZENBIDE OINARRIAK

\* 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30eko, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duena (EPOETB).

\* 30/1984 Legea, abuztuaren 2koa, Funtzio Publikoa Eraberritzeko Neurriei buruzkoa.

\* 11/2022 Legea, abenduaren 1ekoa, Euskal Enplegu Publikoari buruzkoa.

\* 9/1987 Legea, ekainaren 12koa, Administrazioko Publikoen Zerbitzupeko Langileen Ordezkaritzar Organoei, lan-baldintzen zehaztapenari eta partaidetzari buruzkoa

\* 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinariak arautzen dituena.

\* 781/1986 Legegintzako Errege Dekretua, apirilaren 18koa, Toki Araubidearen arloan indarrean dauden Xedapenen Testu Bategina onartzen duena

\* Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legea

Giza Baliabideetako Arduradunak 2023ko apirilaren 5ean txosten juridikoa eman du Idazkari Nagusiaren adostasun oharrarekin.

Udal Kontuhartzaleak fiskalizazio-txostena eman du.

posibilite la ley.

- Elaboración de un plan estratégico de selección al objeto de reducir la temporalidad.
- Elaboración de un diagnostico en relación a las contrataciones externas.

### FUNDAMENTOS DE DERECHO

\* Real Decreto Legislativo 5/2015, de 30 de octubre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley del Estatuto Básico del Empleado Público.

\* Ley 30/1984, de 2 de agosto, de Medidas para la Reforma de la Función Pública

\* Ley 11/2022, de 1 de diciembre, de Empleo Público Vasco.

\* Ley 9/1987, de 12 de junio, de Órganos de Representación, determinación de las condiciones de trabajo y participación del personal al servicio de las Administraciones Públicas.

\* Ley 7/1985, de 7 de abril, de Bases del Régimen Local.

\* Real Decreto Legislativo 781/1986, de 18 de abril, por el que se aprueba el Texto Refundido de las Disposiciones Vigentes en materia de Régimen Local

\* Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi

La Responsable de Recursos Humanos con fecha 5 de abril de 2023 ha emitido informe jurídico con nota de conformidad de la Secretaria General.

La Interventora Municipal ha emitido informe de fiscalización.



## ERRENTERIA

UDALA

Idazkaritza Orokorra / Secretaría General

Giza Baliabideetako zinegotzi delegatuak egindako erabaki-proposamena eta Giza Baliabideetako arduradunak expedientearen jasotako akordio-proposamenari emandako adostasuna ikusita.

2023ko apirilaren 19an, Giza Baliabideetako Zinegotzi Delegatuak proposatuta, Antolaketa Batzordeak gai honen aldeko irizpena eman zuen.

Udalbatzarrak, aldeko 12 botorekin (EH Bildu Orereta/Errenteria, eta Elkarrekin Errenteria) eta 8 abstenciórek (Euskal Sozialistak/Socialistas Vascos (ES-SV) eta EAJ-PNV),

Vista la propuesta de acuerdo de la Concejal Delegada de Recursos Humanos, y la conformidad dada por la Responsable de Recursos Humanos a la propuesta de acuerdo que consta en el expediente.

Visto que en fecha 19 de abril de 2023, a propuesta de la Delegada de Recursos Humanos, la Comisión de Organización dictamina favorablemente el presente asunto.

El Pleno de la Corporación, por mayoría de 12 votos a favor (EH Bildu Orereta/Errenteria, y Elkarrekin Errenteria) y 8 abstenciones (Euskal Sozialistak/Socialistas Vascos (ES-SV) y EAJ-PNV),

### ERABAKI DU

**LEHENENGOA.-** Onartzea Errenteriako Udaleko udal langileen lan baldintzak arautzen dituen akordioa (Udalhitz 2023 - 2025), akordio honen eranskinean jasotzen den testuarekin.

**BIGARRENA.-** Akordio honen iragarkia Errenteriako Udaleko udal langileen lan baldintzak arautzen dituen akordioaren (Udalhitz 2023 - 2025) testuarekin batera Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, eta Eusko Jaurlaritzako dagokion bulego publikora bidaltzea.

**HIRUGARRENA.-** Akordio honen berri ematea udal langileei.

**LAUGARRENA.-** Akordioa jakinaraztea langileen ordezkaritzari eta Errenteria Musical udal Patronatuari.

### ACUERDA

**PRIMERO.-** Aprobar el Acuerdo regulador de las condiciones de trabajo del personal del Ayuntamiento de Errenteria (Udalhitz 2023-2025) con el texto que se recoge como anexo al presente acuerdo.

**SEGUNDO.-** Publicar el presente acuerdo junto al texto del Acuerdo regulador de las condiciones de trabajo del personal del Ayuntamiento de Errenteria (Udalhitz 2023-2025) en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y proceder a su remisión a la oficina pública correspondiente del Gobierno Vasco.

**TERCERO.-** Comunicar el presente acuerdo a todo el personal municipal.

**CUARTO.-** Notificar el presente acuerdo a la representación del personal y al Patronato municipal Errenteria Musical.

**9. Proposamena: 2023ko produktibitatearen zenbateko osoa eta irizpideak onartzea (2023RPOL0030)**

**9. Propuesta: Aprobación del importe global y de los criterios para el pago de la productividad 2023. (2023RPOL0030)**



## ERRENTERIA

### UDALA

Idazkaritz Orokorra / Secretaría General

Negoziazio Mahai Orokorraren 2023ko martxoaren 30eko bileran, bi urteko negoziazio-prozesuaren ondoren, Gobernu Taldeak eta LAB sindikatuak akordio bat lortu dute Erreenteriako Udaleko langileen lanbaldintzak arautzen dituen akordioari dagokionez. Akordio hori indarrean jarriko da onartzen denean, 2023ko apirilaren 25eko udalbatzarra osoko bilkuran eta 2025eko abenduaren 31ra arte iraungo du.

Lan-baldintzak arautzen dituen akordio horretan (aurrerantzean, Udalhitz 2023 – 2025), 2023ko eta 2024ko ekitalditan udal langileei produktitate-osagarri bat ordaintza adostu dute alderdiek.

Produktitate-osagarria funtzió publikoaren legeriak araututako ordainsari-kontzeptua da, eta enplegatu publikoek jaso ditzaketen ordainsari osagarrien artean dago. Administrazio Publikoak nahi duenean ordainduko du, eta helburu jakin bat du: errendimendu berezia, aparteko jarduera eta funtzionarioak lanpostuan jarduteko duen interesa eta ekimena ordaintza, lanpostua betetzearekin zuzenean lotutako inguruabar objektiboetan eta lanpostuari esleitutako helburuetan oinarrituta. Ordainsari hori ez da finkoa, ezta aldizkakoa ere, eta inola ere ez du eskubide kontsolidaturik sortzen.

Produktitate osagarriaren ordainketak hurrengo baldintzak bete beharko ditu:

- Erakundeak ordainketa egin nahi du, aurrekontuan zenbateko osoa esleitzeko erabakia hartuta.
- Banaka esleitzeko irizpideak. Azken horiek Negoziazio Mahai Orokorean negoziatu beharko dira eta ondoren Udalatzak onartu beharko ditu.

En la reunión de la Mesa General de Negociación de 30 de marzo de 2023, tras dos años de proceso de negociación, el Equipo de Gobierno y el sindicato LAB han alcanzado un acuerdo en relación al Acuerdo regulador de las condiciones de trabajo del personal del Ayuntamiento de Erreenteria, el cuál entrará en vigor cuando sea aprobado en sesión plenaria de 25 de abril de 2023, y con duración hasta el 31 de diciembre de 2025.

En el citado Acuerdo regulador de las condiciones de trabajo, en adelante Udalhitz 2023 – 2025, las partes han acordado el abono de un complemento de productividad al personal municipal en los ejercicios 2023 y 2024.

El complemento de productividad se trata de un concepto retributivo regulado por la legislación de función pública, encuadrado entre las retribuciones complementarias que pueden percibir las y los empleados públicos. Su abono es discrecional para la Administración Pública, y el mismo cuenta con una finalidad muy específica, retribuir el especial rendimiento, la actividad extraordinaria y el interés e iniciativa de la persona funcionaria en el desempeño del puesto de trabajo, en base a las circunstancias objetivas relacionadas directamente con el desempeño del puesto de trabajo y objetivos asignados al mismo. Se trata de una retribución de naturaleza no fija ni periódica, y en ningún caso causa derecho consolidado alguno.

El abono del complemento de productividad se encuentra supeditado a los siguientes requisitos:

- La voluntad de la entidad para proceder a su abono, acordando una asignación de cantidad global en el presupuesto.
- Criterios para su posterior asignación individual. Estos últimos deberán ser negociados en la Mesa General de Negociación y posteriormente aprobados



## ERRENTERIA

UDALA

Idazkaritza Orokorra / Secretaría General

2023ko produktibitate-osagarria ordaintzeari aurre egiteko ekitaldiko aurrekontuan behar den aurrekontu-kreditua gaitu da.

2023. urtean errendimendu bereziagatiko produktibitate-osagarriaren esleipena zehatzuko duten irizpideak izeneko dokumentu bat egin da, eta proposamen honi erantsi zaio, I. eranskin gisa.

Dokumentuan jasotzen den bezala produktibitate-osagarri horri ekiteko ezarri behar da jarduna eta produktibitatea ebaluatzeo sistema bat, ahalik eta motibazio, eraginkortasun eta efizientzia handieneko helburuak betetzeko. Alabaina, Udalak ez du karrera profesional horizontalaren progresioari lotuta jarduna ebaluatzeo sistemarik (EPOETBren 20. artikulua).

Horrelako sistemarik ez dagoenez Udalean, eta 2022an ordaindutako produktibitate osagarriaren ebaluazioetatik abiatuta, proposatzen da produktibitate-osagarria kalkulatzea helburuak lortzeko talde-lana eta langile bakoitzak lan horretan izan duen ardura neurtzeko faktore batzuen arabera.

